

ITSU SENDATUAREN ESKER ONA

Otsailak 6 Igandea zen. Meza Nagusian hitz hauek entzunak nituen: "Jesusek asko sendatu zituen era guztietako gaitzetatik". Eliz atarian gizon batekin topo egin nuen, eta berari Arantzazuko Ama Birjinak egindako mirari bat kontatu zidan. Nor zen eta mirariaren berri galdetu nion:

- Ni izatez Astigarrakua naiz. Baina urte asko dira Ordizian bizi naizela. Gaztea nitzan, amasei urte nituen nerekin. Obran lanean ari nintzala, erori eta golpe txar batekin, itsutu egin nintzan; etzuten uste bizirik aterako nintzanik ere.

Ni erori eta urrengo egunean Astagarratik Arantzazura peleginazioa izan zan, erriko erreto-re jauna Don Luis Zufiria buru zutela. Arantzazun meza atera emen zuten nere alde, ala on bazan bizirik ateratzeagatik.

Bizirik atera bai, baino ezer ikusi gabe; andik urte erdira ez nuen ezer ikusten. Don Luis jaunak esaten zidan, leenago ere etzutela pentsatzen bizirik aterako nintzanik, eta nola meza atera zuten

nere alde; eta Arantzazuko Amak bizia salbatu zidala. Urte eta erdi pasaz gero ez nuela ezer ikusten; okulistak etsipena ematen zidatela, ez nuela geiago ikusiko, eta zergatik ez nion promesa egiten Arantzazuko Amari bistaren eske.

Orrela egun batean Arantzazura joan nintzan nere amarekin eta promesa egin nion: ematen bazidan bista bakarrik ibiltzeko aina, Astigarratik joan eta etorri oinez egingo nuela. Etxera joan gihan eta ezuste aundia izan nuen: laugarren egunera ikusten asi nitzan. Denbora gutxira ikusten nuen eskatu niona: leengoaren erdia.

Gero bertso auek jarri nitun, baiñan gauza bat dago bertsoetan esaten ez dena. Nerekin ibili zan okulista Doctor Vidaur, niri bista iritsi zitzaidan- an, mihiolari joan zan, eta berak lanerako laguntzaile zeukan neska, monja sartu zan Segurako komentuan: Sor Zezilia.

Ori da nere gertakizuna

- Bernardo Alberro Anabitarte da Arantzazuko Amaren laguntzaz berriz ikusten hasi zen gizon dohatsua. Gaur ere ikusten duena.

A. IGLESIAS



Milla beatzireun da berrogei ta iru zan, Ernaniko tranbian Kotxera erre zan; bildurgarritzko sua gaua batez izan zan, andik desgrazi txar bat etorri zitzaidan.

Kotxera eta tranbiak danak erre ziran, berriz gero berriak eiten asi ziran, orduan langileak asko falta ziran, batek ara joateko deia egin ziran.

Gure aitak soldatak oso txikik zitun, ni baño gaztegoak sei anai banitun, aientzako laguntzak eraman nai nitun, kobratzeko egunak gutxi izan nitun.

Garagarillan bost zan, obrara joan nintzan,
gure etxe beartsuan danan bearra zan,
goizeko zortzietan lanen asi nitzan,
beratzi terditako eroria nitzan.

Itsutu egin nitzan golpe txar batekin,
amasei urte nitun munduan nerekin,
bitartean bizi nitzan bista ederrakin,
zer naigabe izan nun desgrazi arekin.

Badakizute zer dan itsu gelditzea,
probatu ez duenak zail da jakitea,
sekula argirik ez, beti illunpea,
ori da itsuaren bizi izatea.

Amasei urte nitun arrun itsututa,
mundun gelditu nitzan desgraziatuta,
beti ibiltzen nitzan penaz penatuta,
anai edo arrebari besotik elduta.

- Bernardo, nere itza entzun bear nazu,
urtebete pasata ikusten ez dezu,
biotz biotzetikan promes egin zazu,
orrela bista berdin etorriko zaizu.

Eliz gizon onari ori entzun nion,
erretore jauna zan ukatu ez nion,
Arantzazuko Amari erregutu nion,
bioz biotzetikan promes egin nion.

- Arantzazuko Ama, guztiz pozgarria,
belauniko naukazu aurrean jarria,
len ikusten nun, orain falta det argia,
emango al dirazu lengoan erdia?

Zure aurrean promesa orain egingo det,
Astigarratik oiñez etorri bear det,
ostera bueltan berdin ara joan bear det,
bakarrik ibiltzeko ikusitzen badet.

Promes eginda gero etxera joan nitzan,
gau ta egun errezuz eska ari nitzan,
bañan egun batean asko poztu nitzan,
bat batera ikusten piskat asi nitzan.



Itsu gelditu eta amasei urtekin,
zer desgrazi neukan nere begiakin,
promes egin da gero Ama Birjiñakin,
bista ekarri ziran mirari batekin.

Medikuak nerekin ibilik baziran,
bista piskabat iñork ekarri etziran,
promes egin nuela bi illabete ziran,
eskatutako dana seitun eman ziran.

Iñork desgrazi txarrik mundun badezute,
naigabe aundirikan artu etzazute,
biotz biotzetikan eskatu zazute,
Arantzazuko Amak launduko dizute.

Egiaz gertatuak dira

Bernardo Alberro Anabitarte
Ordizia